



LIBURUA

Eskerrak punkari



MARI SOL RAMIREZ / FOKU

XANGRE. LITERATURA BAZTERREAN
ASKOREN ARTEAN
 BARNEZOMORRO, 2021

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Eskerrak bazterreko kontrakulturari, bestela literatur aldizkariaren faltan egongo ginateke gurean. Izan ere, Euskaltzaindiak 2018an utzi zion *Erlea* argitaratzeari. Urte berean, 111 akademiaren paperezko *111 aldizkaria* gelditu egin zen. Urtebete geroago, 2019an, argitaratu zen *Hegats*-en 57. zenbakia, eta oraingoz, ematen du, pausatuta daukala argitalpena Euskal Idazleen Elkarteak. *Erlea* joan, baina Barnezomorro iritsi zen *Xangre* fanzinearekin.

Zigilu autogestionatuak 2019an argitaratu zuen *Xangre*-ren lehenengo zenbakia. 2021ean argitaratu du bigarrena. Sorpresarik ez: punkak gurutzatzen du fanzinea.

Munduko Poesia Kaiera punkiak baliara bezala irakurri daitezke Linton Kwesi Johnson jamaikar-britainiarraren eta Cinthya Genser proto-punk feministaren lanen itzulpenak. Bestalde, AEBetara eta Europa iparraldera beharrea, hegoalde globalera garamatza *Xangre*-k erreportajeen bidez. Zehazkiago, Peruko “subte” rock undergroundera eta Kolonbiako “punk medallo” eszena musikalera. Gainera, *Lectura fácil* eleberri punkaren idazle Cristina Morales bezala, Throbbing Gristle musika taldearen soinu industrial britainiarrari egiten diote lekua 46 orri fotokopiatuek.

Zarata planetario hori guztia gurera ekartzea lortzen du fanzineak. Euskarazko sorkuntza literario originalak eta

Edorta Jimenezi egindako elkarrizketak Euskal Herrira ainguratzen dute *Xangre*. Kottela ezin iradokitzaileagoa da. Zergatik ez: euskarazko molotov kottel literarioa, bazterretik erdigunera botatzekoa.

Batzuek 1.700 erosle ezin lortu, besteek diru galerak ezin gainditu, normaltasunaren xingola jantzi nahi eta ezinak euskal erdigunearen anormaltasuna uzten digu agerian behin eta berriro. Hainbeste normalizazio nahiren artean, ematen du punka iritsi behar dela instituzioek egin ezin dutena egitera, hori bai, prekario bezain erradikal. Bizi dugun errealitate merkantilizatu honetan, eskerrak autogestioari eta autoedizioari. Eskerrak fotokopia-makinei, “do it yourself” filosofiarri eta literatur aktibismoari. ●